

EGUNEKO GAIAK

EG1

KRONIKA > HERRI URRATS SENPEREN

URTEKO LEHEN EUSKAL BAINU JENDETSUA



Imanol CARRILLO

EGURALDI ETA EGUZKI EDERRAZ LAGUNDUTA, MILAKA EUSKALTZALE BILDU ZEN ATZO SENPERE AINTZIRAREN BAZTERRETAN HERRI URRATS IPAR EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ALDEKO JAIAN MURGILTZEKO ETA, HONEKIN BATERA, ZIBURUKO KASKAROTENEAREN ORUBEA EROSI AHAL IZATEKO SOSTENGUA EMATEKO. JAIA ALDARRIKAPENERAKO GUNEA BIHURTU ZEN.

tHerri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jai erraldoiaren ospakizuna aitzakiatzat hartuta, euskaltzaleek urteko lehen bainu jendetsua emateko aukera izan zuten atzo. "Busti zaitetz euskararengatik" oso lelo aproposa izan zitekeen; izan ere, hogeita hamar gradutik gorako

**Egun osoan
adin guztietako
euskaltzaleek
jarduera
eskaintza
zabala izan
zuten aintzira
inguruan:
tailerrak,
pailazoak,
erakustaldiak,
kontzertuak...**

temperatura zela-eta, Senpere aintziraren bazterretara hurbildu ziren milaka pertsonetatik batzuek, ausartenek, arropa kendu, bainujantzia jarri eta ur epeletan euskaraz aritzeko momentu aproposa izan baitzuten.

Baina aurtengo edizioa "@xik ikastol@" lelopean ospatu zen, eta hori bai, lotsa pixka bat ere nabaritzen zen hasierako orduetan. 10.00 aldera, jaiari hasiera ematen zitzaion orduan, jende ilarak oraindik oso luzeak ez baziren ere -dirua txartelengatik aldatzeko momenturik egokiena-, minutuek aurrera egin ahal, aintziraren bazterrak Euskal Herri osotik etorritako euskaltzalez betetzen hasi ziren.

Ezagunekin, aspaldiko ikastolako lagun edota lankide ohiekin topo egiteko, baita Herri Urratsekin harreman zuzena izan duten pertsonak gogoan izateko ere toki ederra bihurtu zen Senpere. Hala, Lapurdi gunera iritsi baino pixka bat lehenago, ohitura handiko eta ahaztu behar ez den tokian, usain batek aintziraren bidea oinez eta pozik egiten ari zen jendearen zentzumen guztiak piztu zi-

tuen. Zikiro errea prestatzen ari ziren jaiaren 32. edizioa ospatzen zen honetan ere. Eta Jesus Agerrek 32 urte beteko lituzke aurtien prestaketa lanak egiten, baina, zoritxarrez, datorren abenduaren 24an lau urte beteko dira zendu zenetik. Haren sekretu guztiak bere anaiaren esku daude orain, baita Miguel Mendibururen esku ere, egunkari honi adierazi zionez, beste lagun batzuen artean. Haragi puskak hiru orduz izaten dituzte txingarretan.

HAURREN ALGARAK

Goiz samar zen zikiro zati bat jateko, baina eguerdi alderako jende ugarik gozatu ahal izan zuen bere zapoarekin. Horren aurretik, ordea, "La bandas los Lourdos" bezalako txarangek eta zantzarrek aurrera jarraitzeko eta gorputza mugitzeko esaten zieten euskaltzaleei. Hankak haien doinuen menpe zeudela, giroa pixkanaka alaitzen eta berotzen hasi zen. Eta 11.00ak baino ez ziren.

Haurren algarak, dudarik gabe Senpereko aintzirara gerturatutakoen artean kopuru handiena



osaten zutenak, ez ziren ohar-kabeen pasatu. Arrazoia, "Irrien Lagunak" klubeko pailazoak. Gaur egungo eta, batez ere, etorkizuneko euskaltzale aktiboak izan eta izango direnek oso momentu barregarria bizitzeko aukera izan zuten. «Nork bota du puzkerra euskaraz?», galdetu zien bat-batean pailazoak haurrei "Euskararen osasunaren frog" zeritzon ikuskizunaren momentu batean. Lotsak gorri-gorri eginda eta isilik geratu beharrean, eskua harro-harro altxatu zuten neska-mutilak bazeuden belarrean eserita. Ikusleek irribarrez begiratzen zuten gertakizun polit eta inprobisatua.

Txikienek puzgarriekin, jinkanekin, eskaladarekin, tailerrekin edo zurezko marrazketarekin disfrutatu ahal izan zuten eguna, baina ez tirolina fama-tiarekin, aurtan ez baitzebilan. Aurtengo nobedadeen artean, ordea, 13 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako erronka izan zen: Euskal Herri osoko ikastoletako bigarren mailetako gazteentzako proba. Batetik, ikasleen abilezia, indarra eta

abiadura neurtzen zituen jokoa zen. Bestetik, buruargitasuna, jakintza orokorra eta euskaltzaletasuna ere jokoan jarri behar ziren proba hauetan.

Senpereko aintzira inguruan izandako erakustaldi ugarien artean, nabarmentzekoa da Al-baola Itsas Kultur Faktoriak egindakoa. Aurtengo Korrikako testigantza Pasaian dagoen instalazioetan barrena sartu zen, eta Herri Urratsen ere parte hartzeko aukera izan zuen erakustaldi baten bitartez. Bertako langile batzuek egurra nola landu erakutsi zieten euskaltzaleei.

Erakustaldia baino, bi minutu eta erdiko simulazioa egiteko aukera eman zuen Sendaviva Nafarroako parkeak egungo efektu digitalak erabiliz.

Beste efektu batzuk, kasu honetan haizearenak, bizi izan ziren aurrerago, HOrDANtZA gunean, alegia. "Los Seveutons" taldeko kideek, beltzez jantzita, euren dantzak eta kantak haste-arekin batera, atrilean zeuden partiturek bizia hartu zuten haize bolada txiki batek bultzatuta. Anekdotatxo txiki bat besterik ez zen izan, baina orrialde ho-

Senpere aintziraren inguruko gune ezberdinetan jarduera ugari egin ziren: dantzak, zantantzarrak, haurrentzako marrazki tailerrak edota musika kontzertuak.

Aurore LUCAS - Gaizka IROZ

Harrera Etxean bildutako ordezkari ezberdinek Kaskarotenea ikastolako guraso eta langileen «borroka» omendu zuten.

riek bezalaxe, ikusleek ere gozatzeko aukera ederra izan zuten.

ALDARRIKAPEN EGUNA

Harrera Etxean bildutako ordezkari ezberdinek euskararekiko konpromisoa berretsi eta Kaskaroteneako guraso eta langileen «borroka» omendu zuten.

Lurralde-kontratu berrian euskarari berebiziko garrantzia eman behar zaiola esan zuen Ur Gorostiaga Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioko zuzendariak. «Hainbat lan egin dira, hainbat txosten finkatuz euskarak behar duela kualitatiboko eta kuantitatiboki bultzada berria, eta hori Departamenduarekin, Akitaniarekin eta Estatuarekin negoziatuko den lurralde kontratuan gauzatu behar da», azpimarratu zuen.

Bestalde, EAEko Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak esan zuenez, «Frantziak Europako Hizkuntza Gutxituen Gutuna berretsi behar du». Frantxua Maitia sozialistak, berriz, gogoratu egin zuen Euskararen Erakunde Publikoak, Seaskak eta Estatu frantseseko Hezkuntza Ministerioak hi-

rugarren hitzarmena sinatu behar dutela aurtan. Gipuzkoako ahalzun nagusi Martin Garitanok eta Udaltzako lehendakari Mertxe Aizpuruak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Bestalde, ikasleek baxoa euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzeko pankarta eta presoan aldeko manifestazio jendetsua ere ikusi ahal izan ziren bidean.

Jai giroak berandu arte iraun zuen Senperen. Sarrera nagusian kolaborazio lanak egiten ari zen Mixel Zaratiak balorazio «oso positiboa» egin zuen. «Gehienbat Hego Euskal Herri-tik etorritako jendea bildu da, baina Iparraldeko jendea gero eta gehiago datorrela sumatzen da. Hala ere, azken hauek ez dute oso ondo ulertzen dirua txartelengatik aldatu behar izatea», adierazi zuen broma moduan.

Hurrengo pausoa, gaurkoa, den-dena ondo garbitzea izango da. «Honelako eguraldiarekin gauzak errazago egiten dira», azpimarratu zuen Zaratiak azken aldarrikapena bota aurretik: «Urtean hiruzpalau Herri Urrats egin behar dira lirateke behar guztiak betetzeko».